

2. BEZEROEKIN ERLAZIOAK

2.1. Nola erlazionatuko gara gure bezeroekin?

Gure bezeroekin modu errazean eta hurbilean harremanetan egongo gara.

Autozerbitzua eta laguntza pertsonala erabiliko ditugu: aplikazioan informazioa topatzeko aukera izango dute, eta zalantzak badituzte, posta elektronikoko bidez edo sare sozialetan laguntza jasoko dute.

Gure helburua da esperientzia atsegina eta erabilgarria eskaintzea. Bezeroek aplikazioan bertan ikusiko dituzte puntu eta sariak, eta email bidez abisuak jasoko dituzte.

2.2. Nola ikusiko gaituzte?

Gure marka berria eta fidagarria dela ikusiko dute. ReminDoor teknologia sinple eta lagungarria dela irudituko zaie, eguneroko bizitza errazteko eta antolatze baliabide duena.

2.3. Nola deskribatuko gaituzte?

Esango dute enpresa modernoa eta gertukoa garela, produktu erabilgarri eta dibertigarria eskaintzen duena. Puntu eta sari sistemari esker, gure produktuak teknologia, erosotasuna eta motibazioa ematen ditu.

2.4. Nola nahi dugu gure bezeroak guk ikustea?

Nahi dugu bezeroek marka atsegin eta erabilgarria bezala ikustea. ReminDoor-ek eguneroko ohiturak hobetzen laguntzen duela eta etxetik irten aurretik gauza garrantzitsuak gogorarazten dituela ikus dezatela nahi dugu. Horrela, bizitza errazago eta antolatuagoa izango dute.